

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Plentzia*



Aurkibidea

# Udalerria: Plentzia

## Sarrera



Plentzia Uribe Kosta eskualdearen erdialdean dago kokatuta, Barrika, Urduliz, Gatika, Lemoiz eta Gorliz inguruan dituela. Plentziako itsasadarra (edo Butroe erreka) herria hegoadetik iparraldera zeharkatzen du, Plentziako badiaren itsasoratu arte. Txipio, Gatzamine, Isuskitzea eta Saratxaga auzoak osatzen dute herria.

- **Biztanleak:** 4.397
- **Euskaldunak:** %37,45

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **22**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **22**

## Proiektuak

- IRLAren Bizkaiera Bilduma

## Hizlariak



**Isidro Momoitio** (1918)

Itsasontzietako eltzezaina.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

## **1. Baserriko lanak eta baratzeako kontuak (PLE-001/002)**

Baserriko lanaren inguruko azalpenak. Baratza nola landu. Negutegiak eraiki zituzten duela hamar urte, Ingeniari agronomoen aholkupean.

## **2. Bartzelonak gaixotu (PLE-001/004)**

Arrantzara joan eta Bartzelonako portuan gaixotu egin zen Isidro. Honen ondorioz, denbora luzez bajaran egon zen eta itsasoko lanari errespetu handia hartu zion.

## **3. Urte mordoa arrantzan (PLE-001/005)**

Hamalau bat urtez egon zen itsasoan lanean. Gaztetan hasi zen zerbitzari bezala sukaldean. Ezkondu ondoren, ikasten aritu zen. Gero, alturako arrantzari ekin zion.

## **4. Munduko hamaika lekutan egona (PLE-001/006)**

Itsasoan lanean zebilenean, munduko toki asko ezagutu zituen. Egunez eta gau partean zenbaitetan hiriak ikusteko denbora ere izaten zuen lana amaitzean.

## **5. Arrantzaleen fama eta arrantza motak (PLE-001/008)**

Ezkondata egoteak asko eragiten du arrantzalearengan. Ligatzera joaten zirelako fama hori ez da beti egia izan, baina behin ezkondata gauzak aldatzen omen dira arrantzalearentzat.

## **6. Lehengo eta oraingo arrantza (PLE-001/009)**

Garai bateko arrantzak ez omen du gaur egungoaren inongo antzarik. Baimenik gabe hasi zen isidro lanean. Behin baimena emanda, arrantzarako baimena bukatzean bakoitzak bere kabuz irabazten zuen dirua. Ezkondata egotean, ordea, gogorragoa zen itsasoko lana, denbora asko pasatzen baitzen etxetik kanpo.

## **7. Arrantzale sartzeko erabakia (PLE-001/010)**

Familian itsasgizon gehiago zituen Isidrok, anaia bera itsasgizona izan zen, Ameriketara egon zen denbora luzez. Ondoren, Euskal Herrira itzuli eta ezkondu egin zen.

## **8. Itsasontzietako sukaldari (PLE-001/011)**

Ezkonberritan itsasoan ibiltzeko ikasten aritu zen. Ondoren, pixkanaka-pixkanaka karguak aldatuz joan zen Isidro. Lan baldintzak ez ziren onak hasiera batean.

## **9. Itsasontziko janaria eta estraperloa (PLE-001/012)**

Oso janari eta edari ona zuten itsasontzian. Arrantza munduan diru asko mugitu da, tranpetan edo estraperloan batez ere. Argentinatik ekarritako gauza asko saldu egiten zituzten: janaria, tabakoa...

## **10. Tabakoa estraperloan (PLE-001/013)**

Arrantza-ontziak baliatuz, kanpora joan eta tabakoaren salerosketari buruzkoak.

### **11. Kontratu motak itsasoan (PLE-001/014)**

Jarrera ona edukiz gero lanpostua mantentzea ohikoa zen. Medikuri ez zen egoten itsasontzian.

### **12. Medikuri ez itsasontzietan (PLE-001/015)**

Normalean medikuri ez zen izaten itsasontzietan. Gaixo larriren bat bazen, porturantz saiatu ohi ziren. Behin asturiar bat hil zitzaien Danimarkatik bueltan.

### **13. Arrantzan euskaldun asko (PLE-001/017)**

Leku askotako jendea ezagutu du, euskaldun asko zegoen orduan arrantza munduan. Hala ere, galiziar eta asturiarrak ere egoten ziren, baita ingelesak ere.

### **14. Itsasoan gertatutako ezbeharrak (PLE-001/019)**

Garona ibaian izandako istripua. Bruselasko esposizioa ikustera zihoan jende mordo zegoen itsasontzian.

### **15. Kanpoan gauzak merkeago (PLE-001/021)**

Kanpoan elektrogailuak eta beste zenbait produktu merkeagoak ziren erosteko, baina aduanatik pasatzean garesti irteten zen.

### **16. Ezagututako kulturak eta hiriak (PLE-001/022)**

Suitza da gehien gustatu zitzaion tokia. Europako tokiak nahiago. Euskaldunak baino hobeto ez omen da inor bizi.

### **17. Suitzarren izaera (PLE-001/023)**

Gogoratzen du Suitzako eskolako liburuak, eskuz esku pasa arren, berri-berriak mantentzen zituztela. Harriturik utzi zuen honek Isidro, zazpi urteren buruan liburuek lehenengo egunean bezala jarraitzen baitzuten.

### **18. 'Zoriontasunaren parkea' Ginebran (PLE-001/024)**

Ginebrako 'zoriontasunaren parkea' jendez beterik egonda ere, garbi-garbi zegoela gogoratzen du Isidrok.

### **19. "Itsasoa: lantzen ez den ortua" (PLE-001/027)**

Alde onak baditu, baina oso gogorra da itsasoa.

### **20. Itsaso ona izan du orokorrean (PLE-001/028)**

Ameriketara ibili izan denez arrantzan, Kanariak pasata oso erraz heltzen ziren beti. Itsaso onak izan ditu orokorrean. Janaria nola gordetzen zuten.

### **21. 105 mutil eta maisu bakarra (PLE-001/032)**

Sopelako eskolara joaten zen txikitik. Zakuekin nola jolasten ziren gogoratzen du. Mutilak eta neskak bananduta egon ohi ziren, eta maisu bakarra zen 105 mutilentzat. Sopelan beti maisu erdaldunak ezagutu izan ditu.

## 22. Gaztetako erromeriak (PLE-001/034)

Plentzian, Sopelan... erromeria egoten zen igandetan. Gaur egun oso bestelakoa da egoera.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-07-08*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com